

Tarifa indexatuaren baldintza espezifikoak

1. DEFINIZIOAK

1.1. Dokumentu honetan letra larriz jasotzen diren termino guztiak bertan definitzen diren moduan interpretatuko dira eta, definituta egon ezean, Kontratugileak eta SOM ENERGIA, SCCLk sinatutako energia elektrikoko Hornidura Kontratuko Baldintza Orokorretan definitzen diren moduan interpretatuko dira.

2. XEDEA

2.1. Kontratugileak tarifa indexatua kontratatzea eskatu du. Eta, horretarako, oinarritzko betekizuna da Hornidura Kontratua aurretik edo aldi berean kontratatzea.

2.2. Tarifa Indexatua merkatu libreko tarifa indexatu bat da. Energiaren handizkako eguneko merkatuak arautzen duen araudian ezarritako denbora-unitate (ingelesezt, MTU, Market Time Unit) adina prezio ditu eguneko. Tarifa indexatua baldintza espezifiko hauetako 5. klausulan zehaztutako formula erabiliz kalkulatzten da. Prezio aldakorra du, eta prezioa energiaren handizkako merkatuan (OMIE) egunero gertatzen diren aldaketan mende dago. Kanarietako eta Balearretako kontratuen prezioa aldakorra da ere, eta uharteko sistema elektriko bakoitzerako Red Eléctricak karga abiarazteko ezarri duen prezioaren mende dago.

2.3. Tarifa Indexatuaren Baldintza Espezifiko hauen (aurrerantzean, “Baldintza Espezifikoak” edo “Tarifa Indexatuaren Baldintza Espezifikoak”) xedea da, Tarifa Indexatuaren kontratazioaren ondorioz, Hornidura Kontratuko Baldintza Orokorrek egokitzea. Hala, Tarifa Indexatuaren Baldintza Espezifiko hauek Hornidura Kontratuaren Baldintza Orokorretatik banaezinak dira, eta haien edukiak lehenatasuna izango du Hornidura Kontratuaren Baldintza Orokorrek xedatzen dutenaren aldean.

3. INDARREAN SARTZEA ETA INDARRALDIA

3.1. Baldintza Espezifiko hauek indarrean sartuko dira bertan ezarritako datan, baina haiek indarrean egotea Hornidura Kontratua indarrean egotearen mende dago.

3.2. Tarifa Indexatua SOM ENERGIA, SCCLrekin Hornidura Kontratua formalizatzen den aldi berean kontratatzen bada, Hornidura Kontratuaren eta Baldintza Espezifiko hauen indarraldia Hornidura Kontratuko Baldintza Orokorretako 3.3. eta 3.4. klausuletan xedatutakoaren mende egongo da. Hortaz, enpresa banatzaileak (Kontratugilea haren sarera konektatuko da) hornidura-puntuaren altari edo Hornidura Kontratua eta Baldintza Espezifiko hauek gauzatzeko sarerako sarbide-kontratuan egin beharreko aldaketei uko egiten badie, biak automatikoki baliogabetuko dira, kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik sortu gabe.

3.3. Era berean, Hornidura Kontratua edozein arrazoi dela bide baliogabetzen bada, Baldintza Espezifiko hauek automatikoki baliogabetuko dira, tarifa indexatua kontratatu ahal izateko funtsezko betekizuna baita indarreko hornidura-kontratu bat izatea.

3.4. Baldintza Espezifiko hauek Hornidura Kontratuko Baldintza Orokorretako 3.3. klausulan xedatutako hiruhileko natural bateko iraunaldia izango dute. Eta iraunaldia Baldintza Espezifiko hauek sinatzen direnean edo, hornidura-kontratuaz gain produktu osagarri bat baino gehiago kontratatzen bada, kontratazio-data berantiarrenean zenbatzen hasiko da.

4. TARIFA INDEXATUAREN HASIERA- ETA AMAIERA-DATA

4.1. Kontratugileak Tarifa Indexatua tarifa-aldaketa bidez kontratatzen badu eta aurrez SOM ENERGIA, SCCLrekin Hornidura Kontratu bat badu, goiko klausulan indarrean sartzeari eta indarraldiari buruz xedatutakoa eragotzi gabe, alderdiek adosten dute kontratatutako Tarifa Indexatua Baldintza Espezifiko hauen dataren hurrengo fakturazio-zikloaren lehen egunetik aurrera aplikatzen hastea. Baldintza Espezifiko hauek sinatzeko unean aribidean dagoen fakturazio-zikloan zehar kontsumitutako energia Tarifa Indexatua kontratatu aurretik aplikatzen zen tarifaren arabera fakturatuko da.

4.2. Tarifa Indexatua Hornidura Kontratua SOM ENERGIA, SCCLrekin formalizatzen den aldi berean kontratatzen bada, Tarifa Indexatua Baldintza Espezifiko hauetako 3. klausulan ezarritako baldintzak betetzen direnean hasiko da aplikatzen.

4.3. Behin Tarifa Indexatua aplikatzen hasita, Kontratugileak tarifa aldatzen badu eta SOM ENERGIA, SCCLk indarrean eta eskuragarri dituen tarifetako bat kontratatzen badu, tarifa berria kontratatzeko unean aribidean dagoen fakturazio-zikloaren azken

egunera arte Tarifa Indexatua aplikatuko da.

5. “PREZIOA ETA EGUNERATZEA” IZENEN 5. KLAUSULAREN EGOKITZAPENA

5.1. Alderdiek adosten dute Hornidura Kontratuko Baldintza Orokorretara 5.7 klausula gehitzea, eta honela idatzita geratuko da:

5.7. Tarifa Indexatua kontratatatu badu, Kontratugileak, kontratatutako horniduraren kontraprestazio moduan, behean zehaztutako prezioa eta gainerako kontzeptuak ordainduko ditu, eta baita une bakoitzean indarrean dagoen tasari aplikagarri zaizkion zergak, ondare-prestazioak eta legez ezarritako beste guztiak ere. Halaber, Kontratugileak SOM ENERGIA, SCCLk gaitutako kontratazio-kanalez bitartez eskatzen badu, goiko kopuruari Kooperatibaren garapenari laguntzeko borondatezko dohainaren zenbatekoa gehituko zaio.

Energiaren zenbatekoa, denbora-unitate (MTU) bakoitzerako, MTU bakoitzean sartzen den energia aktiboaren kontsumoaren eta MTU horri aplikatzekoa den energiaren prezioaren arteko biderketen batura izango da.

Energia-terminoaren zenbatekoa = MTU bakoitzerako batura (sartzen den energia aktiboa, kWh_t, h_i * PH)

Non h_i , fakturazio-aldiko MTU bakoitza baita,

Eta PH energiaren prezioa MTU bakoitzeko, honako formula honi jarraituz kalkulaturik:

$$PH = 1,015 * [(PHM + Pc + SA + Dsv + GdO + P_{OsOm}) (1 + Perd) + FE + F] + PTD + CA$$

Non:

- **PH** = Energiaren prezioa MTU bakoitzerako.
- **PHM** = Eguneko merkatuko ondoriozko prezioa MTU bakoitzerako. Penintsulako kontratuentzat Energiaren merkatu iberiarreko operadoreak (OMIEk) argitaratutako prezioa da; Balearretako eta Kanarietako kontratuentzat, berriz, uharteko sistema elektrikoko eskariaren prezioa da.

Penintsula: <https://www.omie.es/es/spot-hoy>

- **Pc** = Ministerioak urtero argitaratzen dituen kapazitateagatiko ordainketak, Kontratugileak kontratatzen duen eta Kontratugileak kontsumitzen duen energiari aplikatzen zaion sarbide-bidesariaren arabera.

- **SA** = Red Eléctrica de Españak (REEk) sarea kudeatzeko argitaratzen dituen sistema doitzeko zerbitzuak, faktura sortzeko unean argitaratutako balioaren arabera (liquicomun.zip fitxategian REEk argitaratutako prdemCAD artxiboa).

Dsv = Programatutako energiaren eta azkenean erabilitako energiaren arteko desbideraketengatik ezarritako zigorraren kostua. Dsv kostua kalkulatzeko, REEk BS3, RAD3rako argitaratutako balioak eta gorako zein beherako desbideraketen kostuen batezbestekoa batu egingo dira, eta SOM ENERGIA, SCCLren desbideraketa-faktore propioaz biderkatuko dira. Faktore hori (Desbideraketa-faktorea) SOM ENERGIA, SCCLren webgunean jakinarazi eta hiru hilez behin eguneratuko da. Balearretan eta Kanarietan, Dsv kostua kalkulatzeko, REEk argitaratutako prezioa zuzenean Desbideraketa-faktoreaz biderkatzen da.

$$\mathbf{Dsv} = [1/2 (\text{CoDsvSu} + \text{CoDsvBa}) + \text{BS3} + \text{RAD3}] * \text{Desbideraketa-faktorea}$$

$$\mathbf{Dsv} = \text{scdsvdem} * \text{Desbideraketa-faktorea}$$

- **GdO** = Elektrizitatearen jatorri berriztagarriaren berme-ziurtagiriak eskuratzeko kostua. Kostua SOM ENERGIA, SCCLren instalazioek sortutako energiaren eta jatorri berriztagarriaren berme-ziurtagiriak eskuratzeko kostuaren arabera izango da. Ez denez kostu arautu bat, ziurtagirien hornitzaileekin adostutako baldintzen mende dago. Kostua hiru hilez behin eguneratuko da eta SOM ENERGIA, SCCLren webgunean jakinaraziko da.
- **P_{OsOm}** = REE sistema-operadorearen eta OMIE merkatu-operadorearen kostua. Merkatu eta Lehiakortasun Batzorde Nazionalak (MLBN) ezarritako kostu arautu bat da. OMIEren kostua ez zaie aplikatzen uharteetako (Kanarietako eta Balearretako) sistema elektrikoko kontratuei.
- **Perd** = Sistemaren sorkuntza-puntutik kontsumo-punturako galera arautuen koefizienteak, REEk faktura sortzeko unean argitaratzen duen balioaren arabera.
- **FE** = Azken kostua, Energia-efizientziarako fondo nazionalera (FNEE) ekarpena egiteko betebeharraren inguruko indarreko araudiaren arabera.
- **F** = Kooperatibarentzako tarte (Kooperatibaren bideragarritasuna bermatzeko marjina barne hartzen du).
- **PTD** = MLBNk ezarritako eta argitaratutako garraio- eta banaketa-bidesariaren kostu arautua, kontsumitutako energia guztiaren gainean aplikatuta.

- **CA** = Dagokion Ministerioak ezarritako sistema elektrikoko karguen kostu arautua, kontsumitutako energia guztiaren gainean aplikatuta.

a) Energia erreaktiboaren terminoa

SOM ENERGIA, SCCLk, gehiegizko energia erreaktiboa fakturatzeko moduari dagokionez, indarreko legeriak xedatzen duena aplikatuko du fakturazioan. Gehiegizko energia erreaktiboa Kontratugilearen kontura izango da, eta instalazioan sortutako energia erreaktiboaren portzentajea energia aktiboaren kontsumoarekin alderatuta kalkulatu da.

b) Potentzia-gehegikeriak

SOM ENERGIA, SCCLk sarbide-tarifaren potentzia-gehegikeriak fakturatzeko moduari dagokionez indarreko legeriak xedatzen duena aplikatuko du fakturazioan. Potentzia-gehegikeriak Kontratugilearen kontura izango dira, kontratatutako potentziaren eta azkenean erabilitakoaren arteko diferentziaren neurrian.

c) Konpentsazio sinplifikatua

Konpentsazio sinplifikatua jasotzeko aukera dagoenean, merkaturatzaileak konpentsazio hori fakturretan jaso behar du, enpresa banatzaileak emandako informazioaren arabera, 244/2019 Errege Dekretuak eta autokontsumo-modalitate horri aplikatzekoa den araudiak xedatutakoari jarraituz. Zehazki, merkaturatzaileak saretik kontsumitutako energia hilabete leko fakturazio-alditan fakturatu behar du, irakurketen eta banatzaileak bidalitako informazio osagarriaren arabera, 244/2019 Errege Dekretuko 13. eta 14. artikuluei jarraituz. Horretarako, behean adostutako konpentsazio-prezioa aplikatuko du.

Soberakinen zenbatekoa, MTU bakoitzerako, MTU bakoitzean irteten den energia aktiboaren (soberakinak) eta soberakinak konpentsatzeko prezioaren arteko biderketen batura izango da.

Soberakinen konpentsazio-zenbatekoa = MTU BAKOITZERAKO BATURA (soberazko kWh-ak h_i * PHC h_i)

Eta h_i balioak fakturazio-aldiko MTU bakoitza irudikatzen du.

Non, PHC balioak MTU bakoitzerako soberakinen konpentsazio-prezioa irudikatzen baitu. Penintsulako kontratuentzat OMIEk argitaratutako prezioa da; Balearretako eta Kanarietako kontratuentzat, berriz, hau da: uharteko sistema elektrikoko (balearra eta

kanariarra, hurrenez hurren) eskariaren MTU bakoitzerako prezioa ken sistemaren operazioko doikuntza-zerbitzuen kostuengatik uharteko soberakinek ordaindu behar duten prezioa.

Penintsulako PHC = OMIE prezioa

Uhartetako PHC = SphDem-SphAuto

Araudiak xedatzen duen legez, konpentsazioaren gehieneko balioa energia-terminoaren balioa izango da. Merkatu libreko merkaturatzaile gisa, halaber, bidesariei eta karguei dagokien energia-kostuaren zati arautuaren konpentsazioa ezarri dugu. Soberazko energiaren balio ekonomikoa erabilitako energiarena edo hortik gorakoa bada, fakturan, energia-terminoaren zenbatekoa 0 euro izango da.

6. FAKTURAZIOA

6.1. Alderdiak adosten dute Hornidura Kontratuko Baldintza Orokorretako 7.2. bis klausula gehitzea, zeina honela idatzita geratuko baita:

7.2.bis 7.2. klausulan xedatutakoa eragotzi gabe, Tarifa Indexatua aplikatzeko hartutako kontsumoak irakurketa egiteaz arduratzen den pertsonak aurkeztutako kontsumo-kurbak oinarri hartuta kalkulatu dira. SOM ENERGIA, SCCLk ezin badu fakturatu kurba horiek oinarri hartuta, irakurketa egiteaz arduratzen den pertsonak jakinarazitako edo Hornidura Kontratuko Baldintza Orokorretako 7.2. klausulan aurreikusitako moduren batean eskuratutako kontsumoei sistema-operadoreak argitaratutako koefiziente perfilatuak aplikatuko dizkie, banatzailearen sarerako sarbide-bidesari mota bakoitzerako indarrean dagoen araudiak xedatutakoarekin bat etorriaz¹. 6.1TD banaketa-sarerako sarbide-bidesaria duten hornidura-puntuaren kasuan, 3.0TD sarbide-bidesarirako araudiak ezartzen dituen koefiziente perfilatuak aplikatuko dira.

Kontsumo-kurbak MTU formatua ez den beste formatu batean jasotzen direnean, kurba MTU formatuaren ordu-granularitatera pasatzeko REEk adierazitako prozedurari jarraituko zaio.

¹Merkatu eta Lehiakortasun Batzorde Nazionalaren urtarrilaren 15eko 3/2020 Zirkularra, zeinaren bidez elektrizitatearen garraio- eta banaketa-bidesariak kalkulatzeko metodologia ezartzen baita.

Salbuespen gisa, SOM ENERGIA, SCCLk ezin duenean fakturatu Tarifa Indexatua ez irakurketa egiteaz arduratzen den pertsonak emandako kontsumo-kurben bidez, ez arduradunak jakinarazitako kontsumoak oinarri hartuta, ezta sistema-operadoreak argitaratutako koefiziente perfilatuak aplikatuz ere, fakturatzeko, fakturazio-aldi bakoitzeko merkatuko batez besteko prezio indexatua hartuko da erreferentzia gisa, denboraldi horretan aplikatzekoak diren merkatuko denbora-unitateei (MTU) dagozkien orduko prezioen arabera kalkulatuta.

SOM ENERGIA, SCCLk Baldintza Espezifiko hauek bere webgunearen (www.somenergia.coop) bitartez Kontratugilearen eskura jarri ditu kontratazioa gauzatu aurretik. Baldintza Espezifiko hauek Hornidura Kontratuko Baldintza Orokorretako 3.1. klausulan ezarritako kontratazio-sistemen bidez formalizatu dira, eta, kontratazioa burutzean, Kontratugileari euskarri iraunkorreko ale bat helarazi zaio.